# TXOKO KUTTUNAK

## TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEA

[2026/10]



LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEA HITZA






★ ★ ★ ★

HOTEL RESTAURANTE

# LURUNA

PALACIO LARRINAGA – MUNDAKA







HOTEL LURUNA PALACIO LARRINAGA
GOIKO KALEA, 39 · 48360 MUNDAKA · 94-662 04 04
HOTEL@LURUNA.COM · @LURUNAHOTEL

**www.luruna.com**

# AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| LURUNA HOTELA-JATETXEA (Mundaka) | 2 |
| AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo) | 4 |
| EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo) | 4 |
| MUXIKA, GOROZIKA ETA IBARRURI | 5 |
| BIZKAIKO TXAKOLIÑA | 6 |
| BASONDO (Kortezubi) | 7 |
| EKOBIDEAK (Leioa) | 8 |
| BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo) | 8 |
| NABARNIZ | 9 |
| ALMIKETXU (Bermeo) KAMINOKO (Murueta) | 10 |
| GAUTEGIZ ARTEAGA | 11 |
| ITSASMENDI (Gernika-Lumo) | 12 |
| GAMETXO (Ibarrangelu) | 12 |
| EA | 13 |
| HEMINGWAY (Sukarrieta) | 14 |
| EKOETXEA (Busturia) | 15 |
| ONDARROA | 16-17 |
| ARBE HOTELA (Mutriku) | 18 |
| MUTRIKU | 19 |
| YURRITA GASTRONOMIKA (Mutriku) | 20 |
| BERRIATUA | 21 |
| ELIKAGAI, ARTISAU ETA ANIMALIA AZOKA (Berriatua) | 22 |
| MARKINA-XEMEIN | 23 |
| ANTSOTEGI HOTELA-JATETXEA (Etxebarria) | 24 |
| ETXEBARRIA | 25 |
| ZIORTZA-BOLIBAR | 26 |
| LEKEITIO | 27 |
| MENDEXA | 28 |
| ISPASTER | 29 |
| AULESTI | 30 |
| MUNITIBAR | 31 |
| LEA IBARRA | 32 |



TXOKO KUTTUNAK
TURISMO GIDA
[2026/10]

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**
Lege gordailua: **BI-2906-03** · ISNN: **2173-7118**
Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**
Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**
**www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus**
Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**

Bizkaia foru aldundia
Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.






# Begiratuaz behatu

Unibertso oso bat biltzen da gurean. Aldakorra eta betikoa. Gordeaz batera bisitariari eskuzabal eskaintzen diona.

Bertoko herri, baso eta bazterrak jolas, amets eta denbora partekatuen plaza dira; lehengoaren aztarna eta biharkoaren promes. Eta horiek guztiak, irakurle, gida honek iradoki dizkizu, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeak emateko daukan guztiaz gozatu eta zeure parte bilakatu dadin.

Esku artean dituzun orrietan itsasoak bustitako herriak deskubrituko dituzu; mendiko zoko oparoak. Ur jauzien zuru-zurua eta tontorreko haizeen firi-firia.

Hurritz, gaztainondo eta haritzen habi eta bihotz guztientzako aterpe, erbestekoa eroso egongo da gure mugetan. Kuttun sentituko du hegal bakoitza, eta ustekabean bere egingo. Behatxulo honetatik behatu, eta konturatuko zara.

CIE: 2260

# auka bidaiak

Fray Martin de Murua, 29
GERNIKA-LUMO
94-625 74 14 · 688 68 63 45
auka@auka.eu










EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA

# EUSKAL SOUVENIRS


*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.*
*Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezen!*

Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

@euskalsouvenirs

# Muxika-Gorozika-Ibarruri





Amaia Oleaga Azketa



**Amaia Oleaga Azketa**
*(Irakaslea)*

## «Noan bakoitzean, berdin da nondik, beti bazter berri batekaz topo egiten dut»

Ibarrurin kokatuta dago Amaia Oleaga Azketaren toki kuttunena: Askari mendia. Paisaia aldakorra du berarentzat. Zaharra, bai, baina aldi berean beti berria. Hango aspaldiko historiak modura, aitonari entzundako gertakariak, kontatu bakoitzean berrituak.

Txoko berri bat bistaratzen zaio Oleagari Askari mendira doan aldiro. Izan ere, paraje ezagunak opari atsegina eskaintzen dio hara abiatu bakoitzean. Horrela, basoan hurritz, gaztainondo, gurbitz, haritz, goroldio eta iratzeak aurki badaitezke ere, Oleagari horiek ez, baizik eta haien bizitokiak egiten zaizkio deigarri, harkaitz-blokeak, flora aberatsaz gain beste hainbat ustekaberen gordeleku. «Haitzen artean pilo bat zulo eta pasagune sortzen dira. Baztertxo asko topatzen dituzu edonon. Bertatik gehien gustatzen zaidana da noan bakoitzean, berdin da nondik, beti bazter berri batekaz topo egiten dudala».

### Ur jauziak

Askarik 267 metroko garaiera dauka, eta Oizko mendigunean kokatzen da. Paisaia asko aldatzen da inguru batean edo bestean mugituta, eta abiapuntuak ere hainbat izan daitezke. «Okako aldetik joaten bazara, izen bereko errekak igarotzen du, eta hasierako zatian pare bat ur jauzi egiten dira udazkenean, baita ur potzu bat ere. Bainatzeko eta freskatzeko leku polita da», azaldu du.

Sarri jotzen du bertara txakur eta guzti. Etxetik hurran egonda, joan-etorri azkarra egiteko aukera ematen dio etxeko animaliagaz. Aitonaren pasadizoak bergogorazteko ere bai, akaso. «Alde sentimentalak ere lotzen nau bertara, gure aitona Askari azpiko baserri batekoa da-eta, Ajuria auzokoa, eta beti kontatu izan dizkigu hango kontu zaharrak, batez ere gerra ostekoak».

MUXIKAKO UDALA
Muxika, Gorozika eta Ibarruriko herriak
"Hiru herri udalerri bat"

Ugarte auzoa, 1
**94-625 27 01**
*bulegoa@muxikakoudala.eus*
**www.muxikakoudala.eus**


ZURIA
BAINO
Bizkaiko Txakolina.
Jatorri Deitura Denominación de Origen
GEHIAGO
Gozatzeko modu bat
WINEinMODERATION
ELEGIR | COMPARTIR | CUIDAR
Edan neurriz, zure ardura da.
Bebe con moderación, es tu responsabilidad.
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Unión Europea
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural
Europa invierte en las zonas rurales

# Kortezubi



**BISITA MOTAK**
**Norbanakoak:** Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu (jaiotzak, espezie berriak...). Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.
**Taldeak:** Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.
**Ikasleak:** Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta (haur zein nerabeak). Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

**ORDUTEGIAK**
Astelehenetik ostiralera:
**11:00etatik 15:00etara.**
Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:
**11:00etatik 18:00etara.**

**PREZIOAK**
**Norbanakoak:** Helduak 10 euro eta umeak 6.
**Taldeak:** Bisita gidatuetarako erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohainik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.

# BASONDO, basafaunaren babesleku

Animalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea, esaterako.

Animalia hauek zaindu eta sentsibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errekuperazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta kontaktu zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek ingura-tzen du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, esaterako. Parean, babestutako gunea dago: artadi kantauriarra. Kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, esaterako, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.



**BASONDO BABESLEKUA**

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi
**94-625 44 36**
*info@basondo.com*
**www.basondo.com**



HITZA

# Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.
**Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?**
Oka ibaiaren estuarioaren ezkerraldetik eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitaterik bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: **flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arrokak. Zeuk erabaki!**

# Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek **Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu.**Bisitan zehar, inguruneko elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Begiratu nahi al duzu?**

# EKOBIDEAK

**Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaien baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.**

**Kontaktua:**

**666 85 77 61**
**688 62 72 42**

ekobideak@gmail.com

**www.ekobideak.com**

*Geoturismoa eta Ingurumen Hezkuntza.. haitzak eta zeozer gehiago!*

GernikakoBakearenMuseoaFundazioa

2026/09/18 - 2027/02/28

# FOSIL GIDARIA

## GERRA ZIBILAREN ARKEOLOGIA

Komisarioak
JOSU SANTAMARINA OTAOLA / ANDER GONDRA AGIRRE

# Nabarniz

BASOA



Joseba Oar Etxebarria



**Joseba Oar Etxebarria** *(Irakaslea)*

## «Udala urterik urte lan handia egiten ari da herri lurrak baso bihurtzeko»

Naturazale «amorratua» da Joseba Oar Etxebarria, eta Nabarnizen beteta sentitzen da, bertoko basoaz gozatzeko aukera ematen diolako. Gainera, azken urteetan udala bertoko espezien landaketa hedatzen ari da, eta hori gustukoa du.

Gernikarrak Eleixaldekoa zuen ama, hain zuzen, Errementariena etxekoa, eta arrazoi horregatik, beti eduki du auzo herrira joateko joera. Bere zaletasuna asetzeko leku aproposa ere bada, baso politika aktibo bati eskerrak. «Azpimarratu nahi dut Nabarnizko Udala urterik urte lan handia egiten ari dela herri lurretan gure basoak bihurtzeko. Izan ere, pinuaren gaitza dela eta, pinadi asko bota ditu, eta bertoko basoa sartu», gogorarazi du.

### Herri lurretan aberats

Nabarnizek 300 hektareatik gorako herri lurrak ditu. «Hemen inguruan gehien daukan herria da», dio Oarrek. Kurtxiagana abiapuntu hartuta, baita Galarregi ingurua, baso ederrak daude ikusgai: Ilunzarreruntz zein Ereñoruntz. «Sarritan noa paseatzera hara, eta ikusten dut egiten ari diren lana. Gero eta eremu handiagoa hartzen ari da, eta lekua txukuntzen. Etorkizunean a zelako basoa geratuko den!». Eta zerrenda borobiltzen, Loitiaga inguruko basoa, Omaerrekara jaisten; azken hori, gidatua.

Eleixaldea 365 metrotan dago, eta horrek eragin zuzena du bertako kliman, Oarren beste pasioa. «Nabarnizek hotz ospea dauka, eta bada izan, ze, esate baterako, hotzaldia dagoenean, Busturialdean bera da lehenengo lekua zuritzen —horren adibide, efemeride hau: 1956an hilabete egon zen edurtuta—, izotza egiten du; baina neguan sarritan gertatzen da inbertsio termikoa, hau da, bailaran baino izotz gutxiago egitea Nabarnizen».


**NABARNIZKO UDALA**

Elexalde auzoa, 2
**94-625 50 77**
Faxa: 94 625 65 12
*udala@nabarniz.eus*
**www.nabarniz.eus**








# Almiketxu
Erretegia

Almike Auzoa, 8 Bermeo
94-688 09 25
almiketxu@gmail.com
www.almiketxu.com

# Kamiñoko
erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea
94-625 51 46 MURUETA
kaminokomotxo.com



**Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berriro jatetxeko ateak. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritza tradizionalean espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.**

# Gautegiz Arteaga



Amaia Aberasturi Franco

## OZOLLORAKO BIDEAN



**Amaia Aberasturi Franco**
*(Aktorea)*

**«Orduak eta orduak ematen nituen han, edertasun hark inguratuta»**

Ozollorako bidean dago Aberasturiren toki kuttuna, Gazteluko sarreraren aurretik aldatsean behera joanda. Auzora heldu baino lehen dago bere gustuko lekua, bide erdian; arbola artean eta txorien kantuaren konpainian, itsasadarrari begira.

Gurasoenean bizi zenean jo ohi zuen aukeratutako txokora, bizitzako etaparen arabera testu mota bat edo beste eskuetan hartuta; oraintxe ikasketekin lotutako apunteak, oraintxe gidoiak. «Gerizpetan jartzen nintzen, hankak lurrean, harritxirriekin jolasten. Oso natural sentitzen nintzen han, eta orduak eta orduak ematen nituen edertasun hark inguratuta», azaldu du aktoreak.

### Bisten parte

Gaur egun, ez da horrenbestetan joaten, aktoreak orain Islabekoa duelako bizitoki, baina apur bat urrutiago geratzen bazaio ere, eskura edukitzen jarraitzen du, esperientzia nahi duenean berritzeko. Izan ere, lekuak berarengan daukan eragina ez du galdu nahi. «Ez da handik bistak daudela, baizik eta zeu zaudela bistetan», adierazi du.

Bidean aurrera eginez gero, Ozollora heltzen da, padurara irekitako landa-auzoa eta herriko altxorretako bat. Bertan, hegaztiak bere habitat naturalean ikusi ahal dira, inolako trabarik barik. Gainera, marearen arabera, errota zaharra bistaratzen da. Haren arrasto batzuk baino ez dira geratzen, besteak beste zubia, harri bakar batean egina.

Ez da kasualitatea horrenbeste edertasun toki berean pilatzea, Gautegiz Arteaga Biosfera Erreserba osatzen duten 22 udalerrietako bat da eta. Itsasadarraren eskuman dago, eta sei ibilaldiz gozatzeko aukera ematen du. Padurena da euretako bat, Ozollo bere baitan hartzen duena. 5,30 kilometrokoa da, eta ordubete pasatxoan egin daiteke.

GAUTEGIZ ARTEAGA TURISMOA

**GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA**

Herriko enparantza, 1
**94-625 29 53**
*udala@egautegizarteaga.eus*
**www.turismogautegizarteaga.eus**


ITSASMENDI
ITSAS MENDI
7
Ontzea izan
duen lehenengo
txakolina
bodegasitsasmendi.com
artizarenoturismo.com


Sentsazioz betetako tokia
HOTEL
gametxo
HOTEL
gametxo
Gametxo Auzoa | Ibarrangelu | 94 627 77 10

Bedarona









Natxitua



Eako Udala

HEMINGWAY KANALA HOUSE

# ZURE ZAIN GAITUZU





Mundakako
itsasadarraren
bihotzean







**EDERTASUNA ETA OSASUNA**

**Spa, sauna eta masaje terapia**

**LORATEGIA**

**Lorategi zoragarria itsasora begira**

**NATURA**

**Naturazaleentzat ihesaldia egiteko toki paregabea**

inspiratu zaitez

https://casarural-kanala.com/

casaruralkanala@gmail.com

666680801/618774398

HEMINGWAY *Kanala House*

Kanala Auzoa 19
48317 Sukarrieta – Bizkaia
(sarbidea, Gautegiz-Arteagatik)

# Ezagutu esperientzia berriak!

Zatoz Ekoetxea Urdaibai zentrora eta modu jasangarriagoan bizitzen lagunduko dizuten esperientziekin goza ezazu!







Kontsultatu gure agenda hemen

#EUSKADIBERRIA

ekoetxea Urdaibai

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

700 urte geure ondarruk

# Urte askotarako




700 urte beteko ditu Ondarroak 2027an, eta oraindanik ospakizunean murgilduta dago. Ekimenen bidez, herri harrotasuna sustatu ezezik, bistaratu ere egin nahi du udalak.

Nahiz eta lehenengoko idatzizko aztarnak 1027koak izan, Ondarroako hiribildua 1327ko irailaren 28an eratu zen. Ia 700 urte igaro dira harrezkero, eta urteurren biribila ate joka delarik, hurrengo hilabeteetan ekimen ugariz gozatzeko aukera egongo da. Data sinbolikoaren harira sortu den logotipoaren pean aurkeztuko dira, eta berdin-berdin balioko die herritarrei zein erbestekoei.

## Zubi Zaharra, ikur

Irudiaren egile Lara Larrañagak herriko ikur ezagunenetako bat hartu du abiapuntu, Zubi Zaharra, herria ordezkatzen duela ulerturik. «Mendeetan, eraldatu, kaltetu, suntsitu eta berreraiki izan da. Hala ere, herriaren nortasunaren parte izaten jarraitzen du. Zubi Zaharra Ondarroaren 700 urteen metafora da: irauteak ez du bere horretan mantentzea esan nahi, baizik eta aldaketetara egokitzeko eta aurrera jarraitzeko gai izatea. 700 urteren ondoren, gure herriak aldatzen jarraitzen du. Eta batuta», arrazoitu du. Era berean, zubiaren arkuen forma 700 zenbakiagaz uztartu du autoreak, eta «7»-ari ontzi baten brankaren itxura eman, herriak itsasoagaz daukan lotura iradokiz.

Harrotasuna erakutsi nahi dute bertakoek, eta Larrañagak ere bide horretatik lagundu du logoa lelo honegaz: *700 urte geure Ondarruk*. Sentimendu eta maitasun adierazpen horretatik sortu da zelebratu beharra. «Uste dugu herriak merezi duela eta herritarrok merezi dugula 700. urteurrena behar modura ospatzea, handikeriarik gabe, auzolanean, baina gure izateagaz eta egiteko moduagaz bat; 700 urtera, hemen jarraitzen dugulako, zutik eta itsasoari begira, iparrera», esan dute udalean.

Aurtengo urritik datorren urteko irailera Ondarroara bisitan datozenek herria eraldatuta ikusiko dute, horren adina gogorarazteko euskarriez apainduta. Eta edergarriez haratago, azalaren azpian, nortasun handiko herri bat; horri eutsi nahi diona. «Herri modura harrotasuna sustatu nahi dugu, eragile guztien inplikazioagaz, eta hurrengo belaunaldientzat utzi. Horren barruan sartzen dira geure izaera, sustraiak eta euskara. Izan ere, esaerak dioen moduan, *Izan zirelako gara, eta garelako izango dira*».

# Ondarroa




**Egitaraua**

«Publiko guztientzako moduko ekimenak prestatu dira, eta balioko dute, bai barrura begiratzeko, bai kanpotik datozenari geu garena erakusteko», azaldu dute udalean. Ekintza batzuk nahita sortu badira ere, batez ere lehendik dagoenari balioa eman nahi izan diote. «Gurean astero ekintzak daude, egunean-egunean herri egiten gaituztenak, eta horiei ikusgarritasuna ematen ahaleginduko gara, eta efemerideaz zipriztintzen. Ekintza bakoitzaren balioa azpimarratuko dugu, ekimen berriak aurkezteaz batera», argitu dute.

Beraz, bi eratako ekitaldiak prestatu dira. Batetik, urteroko deialdiek urteurrenaren ukitua edukiko dute, esate baterako, Literatur Amuak ekimenak, Augustin Zubikaraiko ipuin rallyak eta Gabonetako egitarauak; hirurak udazkenean zein negu hasieran. Bestetik, ekintza berriak egongo dira, eta horietan ondarrutarrek protagonismoa edukiko dute. «Azken batean, errotutako ekintzak nabarmentzen ahalegindu gara, eta, era berean, molde berriak topatzen. Ahal den guztia herriko sortzaileekin egiten ahalegindu gara».

Datak zehaztu barik, eta aurretik 365 egun bizi datozela jakitun, zertzelada batzuk eman ditu udalak. Berritasun ikusgarrienetako bat kanta eta bideo klipa da. Hauxe da horren fitxa:

Hitzak: Leire Bilbao.

Musika: Keu Agirretxearen gidaritzapean, herriko hainbat musikari.

Soinu grabaketa: Jon Badiola eta Axular Arizmendi.

Bideoa: Aiora Ponce eta Nerea Gartzia.

Horrez gain, beste hamaika ekitaldi izango dira, besteak beste, su artifizial musikatua, urteurrenaren murala, Ondarroaren ezaugarriak bistaratuko dituen erakustaldia herriko sortzaileen begiradatik eta herriko argazkilarien eskutik egindako egutegi berezia. Gainera, erraldoi berri bat sortuko da propio.

Egunak hurreratu ahala emango ditu udalak ekitaldi bakoitzari buruzko zehaztasunak, «eta merezi duen oihartzuna eman».

Egitaraua 2027ko irailaren 25ean zarratuko da, Erdi Aroko jaiagaz, lehengo Ondarroari begiratua eskainiaz aurrera begira jarriko duen eguna.

ondarru
bizi-bizi

**ONDARROAKO UDALA**

**TURISMO BULEGOA · 94-683 19 51**
**Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)**
*turismobulegoa@ondarroa.eus*
**www.ondarroa.eus**
**www.udalbarriak.eus**

# Mutriku




ARBE HOTELA

## ZERBITZUAK

- Kafetegia
- Doako aparkalekua
- Harrera 24 ordutan
- Hatz-marka digitala geletan sartzeko
- Wifia
- Satelite bidezko telebista
- Ibilbide kardiobaskularrak
- KmO dendatxoa
- Spa (bi etzaulki termiko)





# Itsasoa zure logelan

2015ean Euskal Turismo Saria eskuratu zuen Mutriku eta Deba arteko gainean kokatuta dagoen Arbe Hotelak. Izan ere, kokapen bikaina ez ezik, hotelaren beraren egitura eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea ere saritzekoak dira. Hotel familiarra da: gertuko tratua eta naturarekiko maitasuna dira Arberen markak.

Eraikin abangoardistako 11 logelak daude diseinatuta Kantauri itsasoarekin bat eginez. Bisitariaren begirada itsasoaren ortzimuga zabalean dago, egunez zein gauez ikuspegi liluragarriaz gozatzeko. Logeletako bat aniztasun funtzionala dutenentzako prestatuta dago. Igerilekua ere badago Arben, eta hor ere sentsazioa berbera da: Kantaurirekin fusionatzen da uretan zaudenean.

Naturarekin bat eginda dago Arbe, paisaian ez ezik, baita bere irizpideetan ere. Izan ere, energia geotermikoa erabiltzen du, neguan zein udan eraikin osoa klimatizatzeko. Inguruko belardiak eta baratzea ureztatzeko, berriz, euri ura erabiltzen dute. Era berean, bertako labean egindako gozo ekologikoak, zuku naturalak eta jogurtak eskaintzen dituzte gosarietan. Arben hurbileko produktuak erabiltzen dituzte ahal den guztian, eta dendatxo bat ere badago, inguruan ekoitzitako eskaintzarekin. Garbiketako produktuak aukeratzerakoan ere, naturarekiko errespetua izaten da irizpidea.

Erlaxatzeko eta aktibatzeko, bietarako aukerak eskaintzen dituzte. Erlaxatzeko bidean, bakarka edo bikoteka, ordubeteko masajearen ondoren, sauna eta etzaulki termikoetan etzan eta lasaitasuna sakon arnastu ahal izango duzu. Aktibatzeko, berriz, ibilbide kardiobaskularren eskaintza duzu.

Asteburua edo oporrak igarotzeko leku oso aproposa izateaz gain, enpresako zein taldeko bilerak egiteko gela berezia ere eskaintzen du Arbek: talde lana bakean egiteko aukera bikaina, *catering* zerbitzuarekin.



## Naturaren parte

Arbek begi bistan ditu Zumaia, Deba eta Mutriku. Era horretara, Euskal Kostaldeko Geoparkea bustitzen duen uren artean nabigatzeko aukera aparta dago. Bisita gidatuan Flysch beltza, grisa eta gorriaren nondik norakoak azaltzen dira. Horrez gain, Olatz Karst ezagutzeko aukera dago, kareharriz osaturiko paisaia, baita Debako marismak ikusi eta bertako biosferaren berri edukitzeko ere.

## Geoparkean gaude

Euskal kostaldeko Geoparkean gaude, Mutriku eta Deba artean dagoen Arbe badian. Kantauri itsasoko urek inguratzen eta laztantzen gaituzte, eta txoko txikienean ere kresalaren usain gazi-gozoa nabarmentzen da.




**ARBE HOTELA**
Laranga Auzoa, 5 · Mutriku
**943-60 47 49**
*info@hotelarbe.com*
**www.hotelarbe.com**
Webcama:
http:/194.30.115.154:8081

# Mutriku





Mutrikuko Udala



**Espe Azkarraga eta Jesus Mari Narbaez**
*(Fosil-bildumaren emaileak)*

## «Bildutako fosilak Mutrikukoak direnez, hantxe egon behar dira»

Arrasatearrak izatez, Espe Azkarraga eta Jesus Mari Narbaezek lotura estua daukate Mutrikurekin, 50 urte daramatzate-eta udak bertan ematen. Zazpi plaietako haitzak izan dituzte leku gustukoena; eta bertan fosilak batzea, aktibitate atsegingarri. Orain, bildutakoa udalari dohaintzan eman diote, Talaixa Geomuseorako. «Mutrikukoak direnez, uste dugu hantxe egon behar direla», adierazi dute.

250 fosiletik gorako bilduma da, 100 milioi urte baino gehiagokoa. Azkarragak eta Narbaezek urte askotan herririk herri erakutsi dituzte, baina orain Mutrikun uzteko ordua dela uste dute, hangoak baitira gehienak. Diote, bai dibulgaziorako, bai zientziaren ikerketarako, material baliotsua direla. «Zientzialariak aztertzen ari dira zelan agertu diren horrenbeste espezietako fosilak hain leku txikian. Kontuan hartu behar da aztarna horiek lehen itsaso zabalean zeudela, kosta Errioxan zegoen eta. Eboluzioarekin, eta itsasoaren maila jaistean, Mutrikun agertu ziren».

### Urteetako lana

Arrasatearrek aitortu dutenez, bilketaren atzean behar handia dago, urteetakoa, kontu handiz egin beharrekoa, «batu, garraiatu, garbitu eta gorde behar direlako». Gainera, ezin da edonoiz egin, marearen gora eta beherei adi egon beharra dagoelako, eta etxerainoko garraioak luze jo dezakeelako, materialaren pisuagatik. «Hala ere, prozesu polita da, eta ilusio handia egiten digu».

Udalak oso balio handia eman dio dohaintzari, eta bikotearen eskuzabaltasuna eskertuaz batera, iragarri du Talaixa museo ireki berrian Flyscheko Erraldoiak izenarekin egongo dela ikusgai munduko ammonite erraldoien bilduma handiena ere badena.

GEOPARKEA
EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA

mutriku
TURISMOA

**GEOPARKEA · TURISMO BULEGOA**
Txurruka plaza z/g
**943-60 33 78**
*turismo@mutriku.net*
**www.mutriku.eus**

CONSERVAS

# YURRITA

GASTRONOMIKA

1867

## BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN

## ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA













Zuzeneko salmentaren ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 9:00-15:00

Online salmenta: www.tiendayurrita.com

sarean edota dendan erosteagatik

# %20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, abenduaren 31ra arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #UDAZKENA2026

(+34) 629 51 54 14 pedidos@yurritagroup.com Casa Mauleon Etxea

UREPELEKO LANDA



Esti Arriola Espilla



**Esti Arriola Espilla** *(Irakaslea)*

## «Pentsatzeko eta lasai ibiltzeko lekua da niretzat Boliñeneko buelta»

Gordeta geratzen da Urepeleko landa, eta gordeta gelditu dira, era berean, hango bizipenak Esti Arriola Espillaren oroimenean. Hango iku arbola eta hurretxa, hango iturburua eta zapaburuak berriatuarraren ume aroaren parte izan dira, eta gaur egun haien arrastorik ez badago ere, bere paisaia emozionala osatzen dute. Horregatik du herriko tokirik kuttunena.

«Berriatua sasoi batean zati bitan banatzen zen, Goiko kale eta Beheko kale —zubia zen muga—, eta nik beti jo izan dut neure burua Beheko Kalekotzat», azaldu du Arriolak. Horren parte da Urepeleko landa, Urepel plazatik atzerantz zabaltzen den eremua.

### Esperientzia komunak

Gogoan ditu amona eta biak iturburura uretara joaten zireneko garaiak. Elkarregaz egiten zuten bidea. Zelan batzen zituzten pikuak eta hurretxak; zelan partekatzen zuten denbora. Baita lagunak eta bera garbilekuan zapaburuak harrapatzen jolasten ziren urteak ere. Guztiak Arriolaren ume sasoia zizelkatzen joan ziren bizipenak.

Hortik datorkio Boliñeneko presara joateko ohitura, eremu berean, baina bizitzako beste etapa bati lotuta. «Gaztetatik Kanpetxaneko inguruan bizi naiz, zubi alboan, eta denboraldi bat hortik kanpo egin badut ere, orain bertara buelta egin dut, eta era-era daukat. Pentsatzeko eta lasai ibiltzeko lekua da niretzat Boliñeneko buelta», dio.

Gaur egun, Urepeleko urak bi lekutara doaz: Urepel plazara, non emaria etenik bakoa den, eta futbol zelaira. Halere, emaria ez da horretara mugatzen. Berriatuarrek haregaz daukaten loturaren erakusle, kultur eta kirol talde zenbaitzuk zein hainbat ekimenek Urepel hartu dute izen.

**BERRIATUA ELIZATEKO UDALA**

Herriko plaza, 1 · **94-613 70 30**
Faxa: 94 613 70 27
*udala@berriatua.eus*
**www.berriatua.eus**

ELIKAGAIAK·ARTISAUAK·ANIMALIAK

# AZOKA

## BERRIATUAN2026

## AZAROAK 21

## 10:00-14:00

HERRIKO PLAZAN

**12:30 KALEJIRA** Tarine Udal Musika Eskolako trikitilariekin.
Arratsaldean, ZESTA PARTIDUAK.
39. Berritxu Saria. FINALAK

**Elikagaiak**: Baserritarren produktuak, gazta, eztia, ogia eta gozoak, ahatekiak, taloak, sagardoa...

**Artisauak**: Bitxiak, poltsak, erropak, saskiak...

**Animaliak**: Behiak, idiak, zaldiak, potxokak, poniak, astoak, oiloak, antzarrak eta mundu guztiko hegaztiak.

ANTOLATZAILEAK

BERRIATUKO UDALA

ZESTA ESKOLA


LAGUNTZAILEAK:

LEA ARTIBAI LANDA GARAPENA

Hamen Bertokoa

# Markina-Xemein

## ARNOATE



Eneko Arrate Sololuze



**Eneko Arrate Sololuze**
*(Aktorea)*

## «Nire odolekoak han egon dira 400 bat urte; hantxe zeukaten bizimodua»

Arnoate da Eneko Arrate Sololuzeren toki kuttunena; herrigunetik urrun eta bihotzetik gertu, inguru hartakoa du-eta, Larruskaingoa, familiaren zati handi bat.

Arno mendira sartzeko ate, muga ere bada. Arnoateko baserria bera, lehengo baserri asko modura, bitan banatuta dago: erdia Bizkaian, eta bestea Gipuzkoan; zati bat Markina-Xemein da, eta bestea Mendaro. Urteen joan-etorriagaz, ostera, mendi inguru hori albora gelditzen joan da, eta erdira ekarri nahi izan du Arratek toki gustukoenaz galdetzean. «Larruskain ahaztuen daukagu. Erreparatu kokapenari: herri gunetik bederatzi kilometrora dago, eta Arnoate eta haren goian dauden baserriak, hamalau kilometro ingurura», azaldu du.

Baserri asko desagertu egin dira, eta horregaz batera, auzoa jendez hustu. Sustraiak hantxe ditu berak, ordea, eta muino horren garrantzia aldarrikatu nahi du. «Bere garaian urtean hiru erromeri egiten ziren. Bailarako jendea han batzen zen, neure familia ere bai, seguru, nire odolekoak han egon dira-eta 400 bat urte. Euren bizi eremua hortxe egon zen, bost kilometro koadrotan», dio.

### Herriko harraska bakarra

Erromeriak modura, harraskak ere baziren garai bateko bilgune, «emakumeen espazio librea» historiagileek diotenez, eta Arnoaten badago bat, Markina-Xemeinen geratzen den bakarra, gainera. Oinezko, mendi bizikletazale eta «lekuari xarma ematen dioten erromesek» jakin beharreko datua. Eta horra beste bat, Arrate bereziki pozten duena: instituzioek baso autoktonoaren alde emandako urratsa. «Orain ere leku ederra bada, hemendik urte batzuetara zoragarria izango da», esan du.

MARKINA XEMEIN
Goikoportala, 3
**94-616 74 54**
***WhatsAppa:***
**688 84 49 95**
*udala@markina-xemein.eus*
**www.markinaxemeinturismoa.eus**
**www.markina-xemein.eus**

# Etxebarria

## ANTSOTEGI HOTELA-JATETXEA



# Askatzen duten korapiloak



Historiaz berba egiten dute Antsotegi Hoteleko horma sendoek. Eta bizitzan egoteko modu batez. Hernando-Etxebarriatarrek, jasotako legatuaren balioaren jakitun, hura zaindu eta bisitariekin partekatzen dute, osotasunean eta euren beste goza dezaten.

Maiteminak eraman zituen Etxebarriara Emilio Hernando eta Kata Etxebarria, duela ia 25 urte. Antsotegiko burdinolagaz eta inguruko naturaren aberastasunagaz sorginduta, bertan botan zituzten sustraiak. Horrela hasi zen Antsotegi Hotelaren zeharbidea Etxebarriko lurretan. Bikoteak lehenengo eta atzetik semeek Antsotegiren xarma zaintzea eta burdinolaren historia bezeroei transmititzea izan dute zeregin denbora honetan guztian. Hasieratik, etxearen oinarriari familiarenak gehitu zaizkio. Izan ere, sendiaren mendi senak leku hartu du Antsotegiren itzalean, eta establezimenduaren proposamenen artean txertatu. Horrela, Bizkaian hotel bakarra da turismo aktiboko enpresa daukana: Leaktibai. Espeleologia, puenting, eskalada, uretako jarduerak eta udalekuak eskaintzen dituzte. Horrenbestez, eskualde osoa ezagutzeko aukera daukate Antsotegiko bezeroek.

### Zerbitzu oparoa

Egunean-egunean berritzen da ondarea artatu eta bezeroei onena eskaintzeko konpromisoa. Horren erakusgarri da ostatuaren eta jatetxearen zerbitzua. 0 kilometro filosofiari erantzunez eta euskal gastronomiari begirik kendu barik, eguneko menua eta karta opatzen dituzte: Etxeko sukaldaritza, bertakoa eta tradizionala, non kalitate handiko produktuak erabiltzen dituzten.

Horrez gain, eguen, bariku eta domeka gauetan pizzak dastatu ahal dira, eskuz eta egur labean eginak, eta asteburuetan, dastaketa menuak eta karta.

Nondik datozen ahaztu barik, aspaldi gurasoek lotutako sokak sendo dirau, eta bertara igotzeko eskua, luza.

**EGUNEKO MENUA!**
**Jantokia zabalik, 13:00etatik 15:30era eta 20:00etatik 22:30era.**


ANTSOTEGI HOTELA | JATETXEA


LEAKTIBAI
LEA ARTIBAI ABENTURA

**ANTSOTEGI HOTELA-JATETXEA**

Altzaa auzoa, 15
Etxebarria
**94-616 91 00**
*antsotegi@antsotegi.com*
**www.antsotegi.com**
**www.leaktibai.eus**

# Etxebarria

## SAN ANDRESKO ELIZPEA



Hitza



**Mikele Sotil Etxabe** *(Irakaslea)*

**«Gunea antolatuta dago, eta bi zatitan bereizita, zer edo zelan»**

Jolastoki izan zuen umetan, eta lagunen arteko elkarrizketa eta algaren lekuko isil, hazi ahala. Mikele Sotil Etxabe etxebarritarrarentzat San Andresko elizpea herriko toki kuttunenetakoa da, bere bizitzan bete duen espazioagatik.

Irakasleak esan du denbora asko pasatu izan duela parrokiko sarreran, haren babespean, «kaniketan edo beste hainbat kontutan». Beranduago ere jarraitu zuen izaten hurkoen arteko topaleku. «Orain gaztelekuak ere badaude, baina lehen ez zegoen horrelakorik. Elizapea zen gure gaztelekua», gogorarazi du.

### Bilgune

Garai baten modura, orain ere hara jotzen dute etxebarritarrek beretarrekin biltzeko. «Gu orain gutxiago joaten gara, batzea gehiago kostatzen zaigu eta. Badakit, ostera, hantxe jarraitzen dutela elkartzen hainbatek eta hainbatek. Gainera, gunea antolatuta dagoela dirudi. Bitxia da. Elizapeak U forma dauka, eta bi zatitan bereizita dago, zer edo zelan. Gogoan daukat gure garaian eskolara ematen duen partea gaztetxoagoentzat zela, eta Txominen Ostatura ematen duena, berriz, nagusiagoentzat. Nahiz eta arau hori inon ez egon idatzita, horrela izaten zen. Eta esango nuke oraintxe ere horrela dela».

San Andres eliza XIV. mendean datatuta dago. Dirudienez, mende horren amaieran, Barroetako oinetxeko jaunak sortu zuen apostoluaren omenez Kartagoitia izeneko bere lur sailean. Estilo barrokoko eliza da, eta balio handiko erretaula barrokoa dauka. Barrualdean azpimarragarriak dira XIX. mendeko brontzeko plakaren gaineko olioak. Barroetatarrek elizari eman zizkioten, eta bi gurutzaduren alboetan eta nabe nagusian daude.

Etxebarria udala

**ETXEBARRIKO UDALA**

Peñanekua plaza, 1
**94-616 64 32**
**www.etxebarria.biz**

# Ziortza-Bolibar

BASOAK



Hanna Obremska Afeldt



**Hanna Obremska Afeldt** *(Hizkuntza irakaslea)*

## «Zuhaitzik gabeko paisaiak tristeak eta babesgabeak iruditzen zaizkit»

Basoak ditu maite Hanna Obremska Afeldtek, eta hitzez eta ekintzaz erakusten du hori. Bi urte daroaz boluntario Bizkaian zuhaitzak landatzen. «Ez da erraza izango zuhaitz horiek haztea, lehorteen eta ingurumen arazoen ondorioz, baina saiatzeak merezi du. Izan ere, zuhaitzik gabeko paisaiak tristeak eta babesgabeak iruditzen zaizkit», arrazoitu du.

### Udazkeneko basoak

Udazkenak paseatzera gonbidatzen du, eta Ziortza-Bolibarren horretarako aukera bat baino gehiago dago. «Urtaro honetan, Bolibarko hilerriaren atzealdeko herribasoak eta Ziortzako kolegiataren gainaldeko basoek kolore ederrak hartzen dituzte. Edozein bide har dezakezu —adibidez, Arta auzoaren gainekoa, edo Muniozgurenera, Munitibareruntz edo Oiz aldera doana—, eta ingurua ezagutzeko ibilaldia egin; leku ederrak eta, noizean behin, zuhaitz zaharren bat aurkituko duzu. Paseatzea ederra eta lasaigarria da», azaldu du.

Basoetan ibiltzeak beste eragin bat ere badauka, gogorarazi duenez. «Astean behin basoan bi orduz ibiliz gero kortisol-maila jaisten da, eta gure immunitate-sistema indartzen. Osasuntsu egoteko, basoak behar ditugu».

21 urte daramatza Obremskak Ziortza-Bolibarren, eta basoaren eraldaketaren lekuko izan den arren, basoaren dohainetan sinisten du, eta paisaia berdeekin amesten. «Oporretan, Bosnia iparraldean, mendi bat estaltzen zuen baso berde eta osasuntsu baten argazkia atera nuen. Nire ametsa da gure inguruek etorkizunean horrelako itxura izatea», adierazi du.

**ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA**

Simon Bolibar plaza, 3
**94-616 57 27**
*udala@ziortza-bolibar.eus*
**www.ziortza-bolibar.eus**

# Lekeitio


Hitza

TALAKO



**Naia Rojo Ikazuragagoitia** *(Dantzaria)*

## «Orduak ematen ditut bertan lagunekin jesarrita, berbetan eta egonean»

Talako edo Tala gaina du Lekeitiotik lekurik gustukoena Naia Rojo Ikazuragagoitiak, lagunekin patxadaz egoteko ematen duen aukerarengatik, giroak horretara gonbidatzen duenean. «Udan orduak eta orduak ematen ditut koadrilakoekin bertan, lurrean jesarrita, egonean eta berbetan», adierazi du.

Gainera, «kriston bistak» daude, eta hori ere badu erakargarri Rojoren toki kuttunak. «Lekeitio erakusten duten hainbat gauza ikuskatzen dira bertatik, besteak beste, hondartza, irla, plaza eta portua, eta ilunabarrean, zerua oso polita ikusten da», azaldu du.

«Orain daukadan adinagaz —22 urte dauzka— leku aproposena dela uste dut». Eta iritzi berekoak dira herriko hainbat eta hainbat gazte, udaldiko iluntzetarako plan bera eduki ohi dute eta. Nolanahi ere, denentzat dago tokia; inor ez dago soberan. «Jende asko ibiltzen da bertatik pasieran. Edade guztietakook jotzen dugu bertara, eta bakoitzak bere erara maite du».

### Kaxarrankaren talaia

2026an Kaxarranka dantzatu du, eta dioenez, hartaz gozatzeko talaia ere bada Rojoren gustuko txokoa. «Hiru dantzetako bat Kofradian egiten da, eta Talatik ikusi egiten da», esan du. Era berean, dantza ekitaldien eszenatoki ere bada. «Orain euskal dantzak egiten ditut bakarrik, baina bere garaian balleta ere dantzatzen nuen, non eta Talako barandan; ballet emanaldia eskaini ohi da», gogorarazi du.

Uda atzean utzita, Rojok eta lagunek ez diote lekuari uko egiten. Giro epela bueltatu bitartean, eurek ere ibilaldia egingo dute handik, beste zenbaiten antzera, eta, tarteka, itsasoa zakartzen denean, olatuek Talagaz talka egiten dutenean sortzen den ikuskizunaz atsegin hartu.

lekeitioturismo.eus

**TURISMO BULEGOA**
Santa Elena Etorbidea, 2
**94-684 40 17**
turismo@lekeitio.eus

# Mendexa

ELEIXALDEA



Asier Txakartegi Laka



**Asier Txakartegi Laka**
*(Kazetaria)*

## «Eleixalden batuta, baserri izenetik deitzen genion umeok elkarri»

Eleixaldea da Asier Txakartegi Lakaren herriko tokirik kuttunena, umetako oroitzapen ugariren agertoki eta gaur egungo helbide. Lehen modura orain, herritarren elkartzeko puntua da haren esanetan.

Aita eta ama Mendexakoak izanik, lekeitiarrak eskolaz kanpoko ordu asko pasatzen zituen Eleixalden. Udak, berriz, Likona eta Leagi auzoen artean ematen zituen, batekoa baitzuen ama eta bestekoa aita. «Sasoi hartako umeon unibertsoa baserri auzoetan zegoen, eta domeka heltzen zenean, Eleixalde izaten genuen denok bilgune; baserri izenetik deitzen genion elkarri», adierazi du.

Elizako buelta egin, litxarreriak erosi eta frontoira jo ohi zuten garaiko neska-mutikoek. «Arratsaldetan ere askotan batzen ginen. Gizon gehienek jokoan egiten zuten bazkalostea, eta pilota partidak zeudenean, horiek ikusten egoten ginen, ume zein nagusi».

### Lotura eten barik

Gazte garaia Lekeition bota zuen Txakartegik, Mendexarekiko lotura sekula eten ez duen arren, batez ere jaietan, besteak beste, mahai gainekoa egiten zuelako edo txosnan txanda, dena inguru berean.

Zelaia deitzen da orain Eleixalde, baina lehengo izenagaz izendatzen segitzen du, eta hari lotuta, bertan bizi baita. «Jarraitzen dugu bertan topo egiten, nahiz eta urteen joan-etorriagaz ohiturak aldatu diren; eta lagun asko erakartzen ditu, leku ederra da eta», azaldu du.

Lehengo Eleixalde, gaur egungo Zelaia, aisialdiagaz lotzen du Txakartegik, eta hango eskaintzaz gozatzera gonbidatzen. «Egun pasa egiteko beharrezko guztia dauka».

**MENDEXAKO UDALA**

Zelai auzoa, 1
**94-684 21 06**
***idazkaritza@mendexa.eus***
**www.mendexa.eus**

# Ispaster

## OTOIO



Hitza



**Aitor Larrinaga Kortabitarte** *(Osagilea)*

## «Lehen gaztainak batzen joaten nintzen, edo perretxikotan»

Otoio da Aitor Larrinaga Kortabitarte medikuaren tokirik gustukoenetakoa, Ogellako hondartzagaz batera. Esan du eguraldi egokiagaz begiratoki ederra dela, eta horregatik gomendatzen diola hara joatea Ispaster bisitatzera datorrenari.

Zeru garbiagaz kosta guztia agertzen da mendi tontorretik, Ispaster zati bat tartean (Ogella bera ere bai), baita Bedarona eta Elantxobe ere. Hortaz, gailurrean egonik, propio ipinitako jesarlekuetan jarri eta inguruaz gozatzeko denbora hartzea proposatzen du.

Onartu du aspaldian ez dituela oinak hara bideratzen. «Lehen bai, sarri-sarri, urte sasoiaren arabera. Udazkenean gaztainak batzen joaten nintzen aitagaz, edo perretxikotan, han goiko pinudian. Eta neguan, ehizan, oilagorretan», azaldu du.

### Osasuntsu egoteko ere bai

Bere lanbideak ematen dion begiradatik ere ikusten du Ogella erakargarri. Basoan ibiltzeak osasunarengan eragin positiboa daukala diote hainbat teoriek, estresa gutxitu eta defentsak indartu egiten direla, eta horregaz bat dator Larrinaga. «Ispastertar batzuek Otoiora igotzeko ohitura daukate, astebururo ere bai hainbatek, eta ze ona den hori, bai gorputzarentzat, bai buruarentzat», dio.

Ispasterko mendi enblematikoak 400 metro dauzka, eta gune jakin batzuetan harritsua izan arren eta busti dagoenean adi ibili beharra egon, edozeinek egiteko moduko joan-etorria da Larrinagaren aburuz. «Ibilbideak hiru kilometro dauzka poligonotik abiatuz gero, nahiko erraz igotzen da, eta autoz ere bide zati handia egin ahal da». Medikuak aurreratu du bideak ondo zainduta eta garbi daudela, bai pista, bai baso ibilbideak.

**ISPASTERKO UDALA**

Elexalde auzoa, 9-1.
**94-684 40 25**
**94-684 29 99**
*udala@ispaster.eus*
**www.ispaster.eus**

# Aulesti

## SANTA EUFEMI



**Xabat Oar-Arteta Urkidi**
*(Atleta)*

### «Hango goiko ikuspegiak askatasun sentsazioa ematen dit»

Santa Eufemi gustatzen zaio gehien Xabat Oar-Artetari, batetik, mendizalea delako, eta bestetik, txikitako oroitzapenak ekartzen dizkiolako. «Leku bitxia ere bada, 200 eskailera igo behar dira-eta», adierazi du.

Denbora pasa doa Oar-Arteta mendi enblematikora, lagun artean zein bakarrik. «Deskonektatzeko balio dit», esan du atletak. Umetatik joan izan da hara, baina batez ere pandemia garaian eman zion balioa.


Eguraldi onagaz, oraindik eta ederragoa da Santa Eufemi aulestiarrarentzat. «Han haizeak gehiago jotzen du, freskoago egoten da, eta ikuspegiak askatasun sentsazioa ematen dit», azaldu du.

### Bidea eta tontorra

700 metroko garaieran dago aulestiarren ikurra. Erraz egiteko moduko ibilaldia bada ere, autoz ere ailegatu daiteke zelairaino, eta handik tontorrera jo. Ordu laurdeneko paseotxoa eginez heldu ahal da gailurrera. Bidean, pagoz inguratutako gune bat dago. Bertan, mahaiak eta aulkiak, barbakoak, iturria eta bolatokia daude.

Mendi puntan, ermitaren ondoan jarrita, begi bistan agertzen dira, besteak beste, Urdaibaiko itsasadarra, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldea, Durango inguruko mendiak zein Gipuzkoa guztiko goiak.

Irailaren 16an, ehunka lagun batzen dira Santa Eufemiko eguna ospatzeko, tartean Oar-Arteta bera. Errepikapenean, inguruok ematen duten jokoaren jakitun, ermitara igoera lasterketa egiten da, eta Aulestiko atletak ere bertan parte hartu ohi du.




**Santa Eufemi ermitara igoera lasterketa.**

**AULESTIKO UDALA**

Donibane plaza, 1
**94-627 90 06**
*idazkaria@aulesti.eus*
**www.aulesti.eus**

# Munitibar

PLAZA





**Mari Cruz Ortiz Sisnado** *(Tabernaria)*

## «Neu ere plazan egonda, bertakoak ezagutzeko aukera eduki dut»

Kostatu egiten zaio Mari Cruz Ortiz Sisnadori Munitibartik bazter bakar bat aukeratzea, den-dena atsegin baitzaio, baina bat aipatu behar eta plazagaz geratu da.

Honduraskoa izatez, 2015etik dago Lea-Artibain. Lekeitio izan zuen eskualdean lehenengo bizileku, eta 2025eko apiriletik, munitibartarren artean da familia osoagaz. «Oso ondo sentitu gara hasieratik, eta umeek ere konfiantza handiagoa daukate euskaraz hitz egiteko; trebetasuna hartu dute», azaldu du.

Berba egin, jolastu eta elkarren berri edukitzeko leku onak izan ohi dira plazak munduko edozein txokotan, eta Munitibar ere bada horretarako toki aproposa Mari Cruzen esanetan, berarentzat eta beretarrentzat. «Munitibartarren bilgunea da: umedunek zein ume bakoek topo egiten dute. Neu ere hantxe egoten naiz, eta bertako jendea ezagutzeko aukera eman dit».

### Bertatik bertara

Plazaren alboan lan egiten du, herriko tabernan, eta plazatik bertara eta bertatik plazara ibiltzen dira bizilagunak. Horregatik, bai lanean, bai lanetik kanpo, hurbil dauka toki kuttuntzat hartu duena, eta eguna herritarrez inguratuta ematean, haien artean murgiltzeko modua izan du. Eta berba onak baino ez dauzka hartu duen herrikoentzat. «Jende abegikorra da, jatorra», adierazi du.

Kanpotik datozenen gidari ere izan da behin baino gehiagotan. «Aterpetxea ere badaramadanez, erromesei esaten diet herrian zer aurkituko duten —Munitibar funtsezko geltokia da Done Jakue bidean—, eta gustatzen zaie topatzen dutena. Ez da harritzekoa. Denak sentitzen dira ondo», azaldu du.

MUNITIBAR ARBATZEGI GERRIKAITZ UDALA


Herriko plaza, 6
**94-616 40 07**
**www.munitibar.org**
*alkatetza@munitibar.org*
*idazkaritza@munitibar.org*

# lea ibilbidea

ingenio & natura

GR 38. ARDO eta ARRAINAREN IBILBIDEA




www.leaibarra.eus

Lea Ibarra

Elexalde, 1 - 48289 GIZABURUAGA | tf.: **94-684 29 82** | leaibarra@bizkaia.org

Administrazioa: **94-684 29 82** • Ongizatea: **94-684 29 63** • Garapena: **94-684 44 23**

MUNITIBAR ARBATZEGI GERRIKAITZ UDALA

AULESTIKO UDALA

GIZABURUAGAKO UDALA

AMOROTOKO UDALA

MENDEXAKO UDALA